

KONTATU EZ DENA

Emariak, emakumeek egindako ekarpenak bistaratzen dituen bilduma

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Kontatzen ez dena ez da existitzen. Eta bistan ez dauden erreferenteek ez dute inor amestera edo ekitera bultzatzen. Horregatik, berez existitu diren baina inoren bistara ekarriak izan ez diren emakumeak lehen lerrora ekarri dituzte «Emariak» liburuan. Itzalean egondako emakume zenbait argira ekarri dituzte, beste batzuei argia egin diezaieten.

Historian bar-na ekarpen oso garrantzitsuak egin dituzten emakume asko izan dira. Duela gutxira arte, baina, ez dute kabidarik izan historia liburuetan, ez egin dutena garrantzitsua ez delako izan, historia liburu ofizialak idatzi dituztenek ez dituztelako aintzat hartu baizik. Hartara, ikusezin bihurtu dira jendartearen begietara.

Hutsunea handia da, zuloa nabarmena eta tapatzen zaila. Baina han eta hemen hasi dira hutsunea betetzeko lanean. Eta horretara dator Kalaka Komunikazioko kideek argitaratu berri duten “Emariak” liburua. Autoedizio bat da.

Esanda bezala, hutsune bat betetzera dator liburua. «Emakume erreferenteen berri ez daukagu. Gizonezko erreferenteen berri jasotzen dugu eskolan, eskolatik kanpo, arlo guztietan ematen zaigu gizonezkoen berri; kirole-tan, politikan, enpresa munduan, zientzian... gizonek egin dituzten lorpenen berri badaukagu, baina emakumeen lorpenen berri apenas. Duela pare bat urteko ikerketa bateko datuen arabera, testu-liburuetan agertzen direnen %75 gizonezkoak dira. Datu

hori larria iruditu zitzaigun eta ikusi genuen hutsune hori hor zegoela. Beste hizkuntza batzuetan egin izan dira horrelako bildumak, baina euskaraz ez. Eta garrantzitsua iruditu zitzaigun hutsune hori samurtzen laguntzea eta, gainera, euskaraz egitea», hasi du azalpena Ilazki Gainzak.

Gainzak berak eta Nerea Uriak sortu zuten duela lau urte Kalaka. «Bion jakituria bilduta, zerbitzu batzuk eskaintzen hasi ginen, komunikazioa eta berdintasuna oinarri nagusi gisa hartuta». Gaur egun zenbait zerbitzu desberdin eskaintzen dituzte; diseinu grafikoa, komunikazio estrategiak, aholkularitza, berdintasun planak edota formakuntza parekideak, besteak beste. Duela urte eta erditik Emakundek homologatutako elkarte da gainera.

Kalakakoek garbi dutenez, pertsonaren garapenean erreferenteek garrantzia handia daukate. Finean, maiz horiei begira josten dira ametsak eta planak. «Neskatoentzat garrantzitsua da emakume erreferenteak izatea, muga asko hausten baitituzte horrela. Nahi dutena izateko aukera dutela sinisten laguntzen diete erreferenteek. Eta mutikoen kasuan, aldiz, emakume erreferenteen berri izateak la-



Ezker-eskuin, Ilazki Gainza eta Nerea Uriak, Kalaka Komunikazioko kideak. Autoedizio baten bitartez kaleratu berri dute «Emariak» liburua.
Gorka RUBIO | FOKU

guntzen die emakumezkoei paretik parera begiratzeko eta beren inguruko neskekin harremanak berdintasunetik eraikitzen».

ZEMENTUZKO SABAIA

Historian barrena edonoren erreferente izateko moduko emakume asko egonagatik, orain arteko historia liburuetan apenas izan duten tokirik. «Azken finean, historia idazten duenak aukeratzen du zer kontatu eta nola eta kontaketa horretan ez zaio garrantzirik eman emakumeek egindako ekarpenari. Horregatik egin dugu liburu hau, emakumeek egindako lanari balioa eman eta hori ezagutzera emateko», iritzi dio Nerea Uriak. «Betiko pentsamendua astindu nahi dugu».



Kristalezko sabaiaz hitz egi-
ten da askotan. Zementuzko
sabaia aipatu dute Kalakako-
ek beren lanean. «Bi sabai
desberdin dira. Kristalezkoak
normalean enpresa baten ba-
rruko antolaketari eragiten
dio. Zementuzkoa, berriz,
erreferente faltari buruz ari
da. Horren ondorioz, emaku-
meok modu jakinean uler-
tzen dugu gure egitekoa jen-
darte, maiz etxeari eta
familiar lotuta», agertu du
Gainzak. Uriak azalpen oso
grafikoa gaineratu du; «kris-
talezko sabaian, gora begira-
tuz gero, ikusi egiten da
goian dagoena. Zementuzko-
aren kasuan, ez da ezer ikus-
ten, ez dagoelako ikusteko
moduko erreferenterik. Ikus-
ten ez direnez, badirudi ez
daudela». Hain justu, horri

«Duela pare bat urteko ikerketa bateko datuen arabera, testuliburuetan agertzen direnen %75 gizonezkoak dira. Datu hori larria iruditu zitzaigun eta hutsune bat zegoela ikusi genuen»

«Neskatoentzat garrantzitsua da emakume erreferenteak izatea, muga asko hausten baitituzte horrela. Nahi dutena izateko aukera dutela sinisten laguntzen diete erreferenteek»

info+

Liburua salgai, 10 euroan:

- **Online:**
tienda.pikaramagazine.com • kalaka.eus/
denda
- **Donostia:**
Hontza liburu denda •
Kaxilda liburu denda
- **Tolosa:**
Babel liburu denda •
Manttale haurrentzako
oinetakoak
- **Hernani:**
Pitxin haur jantziak eta
osagarriak
- **Urnieta:**
Muazpi harategia
- **Usurbil:**
Lizardi liburu denda
- **Iruñea:**
Katakrak liburu denda •
Karrikiri Euskaldunon
Topagunea
- **Gasteiz:**
Mara-mara liburu denda
- **Elgoibar:**
Pitxintxu opari denda

bueltak eman nahi dio “Ema-
riak” liburuak.

AUKERAKETA

Historian barna, garai eta toki
desberdinetan, aintzat hartze-
ko moduko emakume asko
izan dira. Horien lagin bat bai-
no ez dute hartu lan horretan,
aukeraketa bat egin behar izan
dutelako. «Erreferentziakoak
diren emakume mordoa izan
da historian. Liburu honetan
lagin txiki bat baino ez dugu
bildu, jendearengan jakin mi-
na eta hausnarketa bultzatze-
ko behintzat».

Zenbait irizpidek gidatuta
egin dute hautaketa hori: lu-
rralde desberdinetakoak, arlo
desberdinetan arituak, Euskal
Herrikoak tartean eta ez oso
ezagunak direnak. Horiek izan
dira, gutxi edo gehiago, lana
gidatu duten irizpideak.

«Emakume ezezagun sama-
rrak aukeratu ditugu. Simone
de Beauvoir, Marie Curie, An-
gela Davis, Frida Kahlo eta bes-
te emakume batzuk ezagunak
dira gure artean, beren ingu-
ruko informazioa zabaldu de-
lako azken urteetan. Beren
ekarpenak, zalantzarik gabe,
oso garrantzitsuak izan dira.
Baina horien berri zerbait ba-
dakigunez, hain ezagunak ez
diren emakume batzuen berri
eman nahi izan dugu. Ezeza-
gunagoak diren emakumeak
ekarri ditugu liburura, errefe-
rente gehiago izan ditzagun»,
azaldu du Gainzak.

Aukeraketa horretan, izen
propioak ez ezik, bi kolektibo
ere nabarmendu dituzte: etxe-
an lan egiten duten emakume-
ak eta sufragistak. «Finean,
emakumeen borroka kolekti-
boa izan da eta da. Horregatik
garrantzitsu jo dugu bi borro-
ka kolektibo horiek aipatzea.
Etxean lan egiten dutenak
ekarri ditugu lehen lerrora,

gure inguruko emakumeei
omenaldi bat egiteko modua
delako. Historia guztian zehar
eta herrialde guztietan giza es-
kubideen aldeko borrokan ari-
tu dira; zaintza ziurtatzen, fa-
milia zaintzen, etxea... Beren
ametsak eta etorkizun desber-
din bat izateko aukera alboan
utzi eta etxeari garrantzia
eman diote. Oso emakume au-
sartak izan dira eta ez dira ba-
loratuak izan. Horregatik era-
baki dugu emakumezko
erreferente horiekin hastea»,
esan dute egileek.

Sufragisten kasuan, berdin.
«Mundu mailako mugimendu
bat izan zen, oso garrantzi-
tsua. Garai hartan egin zuten
borrokari esker ditugu orain
hainbat eskubide, haien borro-
kari esker. Hori kontatu beha-
rra dago», gaineratu du Nerea
Uriak.

Liburuaren amaieran arike-
ta batzuk proposatzen dituzte,
irakurritakotik irakurleak zer
jaso duen ikusteko. Finean,
Emariak baliabide bat da, pa-
rekidetasuna eraikitze bide-
an urrats txiki bat. Berez hel-
duentzat da liburua, bertako
informazioa barneratu eta
haiek haurrei helarazteko. Ho-
rregatik gurasoak eta irakasle-
ak oso kontuan izan dituzte li-
burua egiterako orduan.
«Garrantzitsua da helduek
emakume erreferente horien
berri jasotzea eta gero jakintza
hori haurrei transmititzea.
Guretzat hori litzateke one-
na», nabarmendu dute.

«Hasieratik gure asmoa izan
da jendartearen eragitea, berdin-
tasun irizpideak azaltzea eta
gure ahalmenetik —elkarte txi-
ki bat garelako jakitun— eraldake-
tak bultzatzea. Liburu honekin
pozik gaude helburu hori lor-
tu dugulako; etxetara iritsi
gara, jende desberdinarengana
iritsi gara...», bukatu dute.


ALICE GUY
(Frantzia. 1873-1968)

Zine industriako aitzindarietako bat izan zen. Zinemagintzaren historiako lehenengo film narratiboa egin zuen: «La Fee aux Choux», 1896an. New Jersey mundu mailan hoberen hornitutako estudioa eraiki zuen eta bertan pelikulak zuzentzen jarraitu zuen 1920ra arte. Bere bizitzan zehar mila pelikula inguru zuzendu eta ekoiztu zituen. Hala ere, bere lanak gizonezko lankideen izenean daude orain eta bere izena egiletza historiatik ezabatua izan da. KALAKA



LEONA W. CHALMERS
(AEB. 1900- ?)

Aktorea eta asmatzailea zen, besteren artean. Lehen kopa menstrual sortu zuelako egin zen ezagun 1937. urtean. Antzeko produktuak izan ziren lehenago, baina bera izan zen kopa patentatu eta komertzializatu zuen lehena. Garai hartan merkaturatu ziren goma gogorreko kopek ez zuten arrakastarik izan, parean erabili eta botatzeko konpresak eta tanpoiak merkaturatu zirelako batetik eta hilekoa ezkutatu beharreko gauza zikina bezala ikusten zelako bestetik. Azken urteotan arrakasta handiagoa dute kopek. Chalmers aitzindaria izan zen hilekoarekin lotutako aurrerapausoetan. KALAKA



ELBIRA ZIPITRIA (Gipuzkoa. 1906-1982)

Irakasle eta pedagogoa, bizitza guztia euskal kultura eta euskara babesteko lanean jardun zuen. Politikaria izan zen eta Eusko Emakume Abertzaleen Batzan mitinak ematen zituen esparru publikoan emakumerik ez zen garaian. Herriz herri joaten zen euskararen eta euskal kulturaren garrantziaz kontzientziaztera. Helduak alfabetatzen ere sekulako lana egin zuen. Pedagogia eredu oso aurrerakoiak erabili zituen eta berak asmatu zuen «nor-nori-nork sistema». KALAKA




ALEXANDRIAKO HIPATIA (Egipto. 370-415)

Zientzialari, filosofo neoplatoniko eta jakintsua izan zen eta matematikaren eta astronomiaren garapenean lagundu zuen. Bere aita, Alexandriako Teon, matematikari eta astronomo ospetsua izan zen eta bere jakinduria alabari eman zion. Harrigarria IV. mendean. Historialari batzuen arabera, alaba aitari gailendu zitzaion eta Teonen idatzi asko benetan Hipatiarenak direla uste da. Paganoa zen eta garai latzak pasatu zituen, horri eutsi eta ez zelako kristau egin. KALAKA

HEDY LAMARR
(Austria. 1914-2000)

Hedwig Eva Maria Kiesler 16 urterekin ingeniari itza ikasten hasi zen. Hiru urteren buruan ikasketak utzi eta antzerki munduan sartu zen. Gurasoek behartuta ezkondu eta senarrak etxean sartuta izan zuen, harik eta alde egin zuen arte. Izena aldatu zuen orduan: Hedy Lamr. 1940an, torpedo bat irrati frekuentzia bidez gidatzeko ideia izan zuen eta Secret Communication System-a patentatu zuen. Asmakuntza garrantzitsua eta gerora oso erabilia izanagatik, ez zuen horrekin dirurik irabazi. KALAKA



ETXEAN LAN EGITEN DUTEN EMAKUMEAK

Herrialde eta garai guztietan giza eskubideen borrokan gogor aritu dira etxean lan egiten duten emakumeak. Etxeko antolaketa eta zaintza izan dira horien borroka, balore ekonomikoa ez duen lana eginez eta beren askatasun pertsonal, ekonomiko eta soziala alde batera utziz, gainontzekoei euren alboan utzitakoa izan dezaten. KALAKA



MIRIAM MAKEBA (Hegoafrika. 1932-2008)

«Mama Afrika» ezizenagatik ezaguna, Apartheidaren kontrako ikurretako bat izan da. Hegoafrikan zailtasun eta oztopo asko izan zituen musikan aurrera egiteko Apartheidaren kontrako borrokan konprometitua zegoelako eta erbestera bidea hartu behar izan zuen. Italian eta Britainia Handian bizi izan ondoren, AEBetara jo zuen. Baina AEBetako FBI Ikerketa Bulego Federalak harrapatu eta Gineara bidali zuen. Grammy saria jaso zuen lehen abeslari beltza izan zen Makeba. KALAKA

SUFRAGISTEN
BORROKA

1918. urteko otsailean onartu zen Britainia Handiko emakumeen bozka eskubidea. Estatu espainolean, 1931ko Konstituzioan. Lorpen horren atzetik hamarkada askotako borroka latza dago, klase sozial guztietako emakumeen bultzada. Historiara pasatu diren gehienak jatorri burgesekoak izanagatik, beren eguneroko ogia arriskuan jarri zuten emakume langile pobreen indarra ere beharrezkoa izan zen. KALAKA



JOSEFA MOLERA (Nafarroa. 1921-2011)

Kimikaren alorrean aitzindaria. Bide luzea egin zuen zientzian, mila oztopo gaindituz. 1942. urtean egin zituen Kimikako ikasketak Madrilén. 1948an doktore titulua lortu zuen, bere lanagatik Aparteko Saria jasoz. 1950ean Oxfordera joan zen, Kimikako Nobel Saria jaso zuen Cyril Norman Hinshlewooden zuzentzen zuen laborategira. Gogor lan egin behar izan zuen Nobel sariduna bere balio profesionalaz konbentzitzeko. Handik bueltan, ikertzeko lerro berri bat sortu zuen. KALAKA



MELITTA BENTZ (Alemania. 1873-1950)

Etxean lan egiten zuen. Pikorrez betetako kafea edateaz nazkatuta, material desberdinekin probak egin eta kafe filtroa sortu zuen. 1908an asmakizun hori M. Bentz izenpean patentatu eta kafe filtroen fabrika zabaldu zuen. Hasieratik bere helburua langileak zaintzea izan zen: Gabonetako ordainsaria, bost eguneko lan astea, festa egun gehiago... Melitta Aid fundazioa sortu zuen langileei laguntza soziala eskaintzeko. 1950ean hil bazen ere, fabrika martxan dago oraindik. KALAKA



JUNKO Tabei
(Japonia. 1939-2016)

Alpinista aitzindaria. Gizonek baztertua izateaz nazkatuta, 1969an bere lehen kluba sortu zuen, emakumeek bakarrik osatutakoa (Ladies Climbing Club). Helburua Himalaiara emakumez osatutako espedizioa egitea zen eta 1970an lortu zuten. Helburuak handituz eta oztopoak gaindituz osatu zuen bere ibilbidea. 1992. urtean, munduko zazpi gailur altuenak zapaldu zituen lehen emakumea bilakatu zen. KALAKA

WANGARI MAATHAI (Kenia. 1940-2011)

Maathai ingurumenaren aldeko ekintzailea eta politikaria izan zen. AEBetara joan zen ikastera 20 urterekin eta Biologian lizentziatu zen. Bi urte geroago, doktoratu egin zen Albaitaritzako Anatomian. Gerora Alemanian eta Nairobin sakondu zituen ikasketak. Nairobin unibertsitatean irakasle eta zuzendari postuak lortu zituen lehen emakumea izan zen. 30 urte baino gehiago eman zituen oihanean suntsipenaren kontra borrokan. 2004an Bakearen Nobel Saria jaso zuen. KALAKA

